




ISEI - IVEI

C6. PRESTAKUNTZA IRAUNKORREKO PARTAIDETZA





ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Edizioa: Ekaina 2010

© ISEI-IVEI-k argitaratua

ISEI-IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-Sistema Ebaluatuta eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao Tel.: 94 476 06 04 - Fax:
94 476 37 84 info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



INKESTAREN AURREKO LAU ASTEETAN PRESTAKUNTZA EDO HEZKUNTZA JARDUERETAN PARTE HARTU DUEN 25-64 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOA.

Europar Batasunaren helburua 2010. urterako: Europar Batasunean prestakuntza iraunkorreko batez besteko partaidetza maila gutxienez lanerako adinean (25-64 urte) dagoen populazioaren %12,5 izatea.

Prestakuntza iraunkorraren ideia ezagutzaren eta informazioaren gizartearen proposamenik erakargarrienetako bat da. Ezagutzaren gizarteak eskatzen du prestakuntzaren kontzeptua bizitzaren aldi jakin bati –gaztaroari kasurik gehienetan– soilik ez lotzea.

Europako Batzordeak honela definitu zuen prestakuntza iraunkorra: "bizitzan zehar norberaren, hiritarren, gizartearen edo enpleguaren ikuspuntutik ezagupenak, gaitasunak eta jarrerak hobetzeko asmoz gauzatzen den edozein prestakuntza-jarduera" (Batzordearen adierazpena: "Prestakuntza iraunkorrerako europar gun bat errealitate bihurtu", 2001).

Definizio horren arabera, Europa berriko hiritarrek beren ezagupenak, gaitasunak eta jarrerak bizitza osoan zehar eguneratzeko eta osatzeko erronkari aurre egin behar diote, norberaren garapen maila altuagoa lortzeko asmoz eta lan merkatuan ahalik prestakuntzarik onenarekin mantentzeko asmoz.

Gaur egungo gizartearen krisi-egoeran, prestakuntza iraunkorrak lanean diharduten pertsonen lanerako erabilgarriak diren ezagupen eta trebezia berriak eskaintzen dizkie. Horrez gain, lanik ez duten pertsonentzat prestakuntza ezinbestekoa da lan-munduan sartzeko, haien ezagupen-maila gaitzen, gaurkotzen eta hobetzen baitu. Laburbilduz, herrialdeetako giza produktibitatea eta kapitala handitu egiten ditu, eta baita norberaren prestakuntza-beharrak asebetze ere.

Prestakuntza eredu hori, Batzordeak berak adierazi duenez, europar gizarte-eredutik ezin berezizkoa da eta, horren ondorioz, 2010. urterako helburu hau finkatu zen: 25-64 urte bitarteko biztanleriaren % 12,5ek gutxienez prestakuntza iraunkorreko jardueretan parte har dezan lortzea, tasa hori EBko inongo herrialdetan % 10 baino txikiagoa izan behar ez delarik. Gaur egun helburu hori % 15era igotzea pentsatzen ari da 2010-2020 hamarkadan betetzeko.

Batzordeak finkatu zuenetik, adierazle honek zenbait aldaketa izan ditu. Gaur egun prestakuntza bezala inkesta egin aurreko lau asteetan burututako edozein ikastaro, ikastaldi edo lantegi arautu, ez-arautu edo informal hartzen da. 2006. urtetik aurrera datua urteko lau hiruhilabeteetako batez bestekoari dagokio. Adierazlearen definizioan izandako aldaketa hori kontuan izanik, aurreko datuak irizpide berri horren arabera birkalkulatu dira. Ordura arte 2. hiruhilabeteetako datua, udaberriko datua, kontuan izaten zen.



2008. urtean Europar Batasuneko 25-64 urte bitarteko biztanleriari dagokionez, jatorrizko 15 herrialdeetan % 11k modu bateko edo besteko ikasketak egiten zituen, eta 27 herrialdeetan % 9,6k (behin-behineko datuak oraindik). Bilakaera aztertuz gero, oso datu egonkorra dela ikusten da eta, beraz, 2010. urterako % 12,5ean finkatutako helburua ez dela beteko pentsa daiteke. Gainera, EBko 27 herrialdeen bi herenek % 10 baino ehuneko baxuagoa dute. Kontutan hartu beharrekoa da datuen barreiadura:

Bulgariak eta Errumaniak, adibidez, % 2 baino ehuneko baxuagoa dute, eta Danimarkak eta Finlandiak, berriz, % 20 baino ehuneko handiagoa.

Euskadiri dagokionez, 2000-2008 aldiko bilakaerak prestakuntza iraunkorraren tasan etengabeko aurrerapena izan dela adierazten du, 2000ko % 4,5etik 2008ko % 13,5era pasa delarik. Finkatutako helburua 2005ean bete zen Euskadin, eta 2005etik 2008ra tasak handitzen jarraitu du.

Autonomia Erkidegoei dagokienez 2008. urtean Nafarroa (% 12,6) bakarrik heldu da helburura, Euskadirekin batera. Hala eta guztiz ere, gainontzeko erkidegoek % 10 eta % 12 inguruko ehunekoa dute, eta Espainiako batez bestekoa (% 10,4) Europako batez bestekoa baino puntu bat handiagoa da. Azken lau urteotako bilakaera aztertzen badugu, zenbait gorabehera txiki ikusten dira, baino ez diote batez bestekoari eragin. Batez bestekoa oso egonkorra da (2005ean % 10,5 eta 2008an % 10,4).

2008an, Europar Batasuneko herrialdeetan Alemanian izan ezik, eta Autonomia Erkidegoetan Murtzian izan ezik, emakumezkoek gizonezkoek baino parte handiagoa hartu zuten prestakuntza iraunkorreko jardueretan. Edozein modutan ere, partaidetzaren ehunekoen arteko ezberdintasunak, sexuaren aldagaiari dagokionez, ez dira oso handiak, Danimarkaren eta Finlandiaren kasuetan izan ezik, prestakuntza iraunkorraren ehuneko altuenak dituzten herrialdeak hain zuzen ere. Euskadiren kasuan sexuen arteko ezberdintasuna 3 puntukoa da, Autonomia Erkidegoen artean altuenetakoa.




C6.1 taula eta grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. EAEko datuak.

Urtea ⁽¹⁾	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea
2000	4,9	5,4	4,4	1,0
2001	4,9	5,7	4,1	1,6
2002	6,1	7,1	5,1	2,0
2003	6,2	7,1	5,3	1,8
2004	6,5	7,9	5,2	2,7
2005	12,7	14,6	10,7	3,9
2006	12,6	13,8	11,3	2,5
2007	13,4	14,6	12,3	2,3
2008	13,6	15,1	12,1	3,0

(1) Serie osoa EPA-2005 metodologiarekin kalkulatu da.



Iturria: INE. EPA-2005 metodologia, eta urteko hiruhilabeteetako batez besteko datuak.



C6.2 taula:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Autonomia Erkidegoetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
GUZTIRA	4,5	4,4	4,4	4,7	4,7	10,5	10,5	10,6	10,6
Andaluzia	4,7	4,5	4,2	4,4	4,4	9,5	9,8	10,0	9,7
Aragoi	4,0	3,5	3,5	4,1	4,0	11,3	11,9	11,6	11,2
Asturias	3,7	3,4	3,4	4,5	3,7	8,9	8,3	8,7	10,1
Balearr Uharteak	3,5	3,6	4,1	4,5	5,4	9,5	10,8	9,4	8,7
Ceuta eta Melilla	8,0	6,2	5,0	6,0	5,0	12,4	12,0	10,8	11,8
Errioxa	1,9	2,4	2,3	2,0	2,0	10,4	9,1	9,4	9,5
Euskadi	4,9	4,9	6,1	6,2	6,5	12,7	12,6	13,4	13,6
Extremadura	2,9	3,3	3,1	3,7	3,3	9,5	9,1	12,6	11,0
Galizia	3,9	4,4	4,9	5,1	6,0	10,5	11,5	11,2	11,5
Gaztela eta Leon	6,1	5,4	6,0	6,2	6,4	11,7	11,2	10,8	11,2
Gaztela-Mantxa	4,9	4,5	4,7	5,0	4,7	8,6	9,0	9,8	9,5
Kanariak	5,6	6,2	6,4	6,4	6,5	11,6	10,7	11,3	11,0
Kantabria	3,1	2,1	2,3	2,4	2,6	9,7	8,7	7,7	8,1
Katalunia	3,1	3,2	2,8	3,2	2,9	10,0	9,7	9,1	8,9
Madril (Erkidegoa)	3,9	3,6	3,5	4,0	3,7	12,2	11,8	11,6	11,8
Murtzia	4,7	5,0	4,8	5,5	5,6	8,7	9,5	10,2	10,1
Nafarroa (F. Erkidegoa)	6,0	6,6	6,4	6,1	3,9	12,1	12,1	13,5	12,7
Valentziako E.	6,9	6,8	6,3	6,6	6,6	10,5	10,7	10,6	11,3


Oharra: Serie osoa EPA-2005 metodologiarekin kalkulatu da.

Iturria: INE. EPA-2005.



C6.2 grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Autonomia Erkidegoetan.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, erreferentziatzat 2008. urtea harturik.


Iturria: INE. EPA-2005.



C6.3. taula eta grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoa Autonomia Erkidegoetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2008. urtea.

	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea
GUZTIRA	10,4	11,3	9,5	1,9
Andaluzia	9,5	10,4	8,6	1,8
Aragoi	11,1	12,4	9,8	2,6
Asturias	9,9	10,9	8,9	2,0
Balear Uharteak	8,6	9,5	7,8	1,7
Ceuta eta Melilla	11,7	13,4	10,0	3,4
Errioxa	9,5	10,4	8,6	1,8
Euskadi	13,5	15,0	12,0	3,0
Extremadura	10,9	12,1	9,8	2,3
Galizia	11,3	12,2	10,3	1,8
Gaztela eta Leon	11,1	12,9	9,4	3,5
Gaztela-Mantxa	9,4	10,5	8,3	2,2
Kanariak	10,8	12,1	9,5	2,5
Kantabria	7,9	8,8	7,1	1,6
Katalunia	8,8	9,9	7,6	2,3
Madril	11,7	12,1	11,3	0,8
Murtzia	10,0	9,8	10,2	-0,4
Nafarroa	12,6	13,3	11,9	1,3
Valentziako E.	11,1	11,8	10,4	1,4



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: INE. EPA-2005.



C6.4 taula:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006 ⁽¹⁾	2007	2008
EB (27 herrialde)	7,1 (e)	7,1 (e)	7,2	8,5 (b)	9,3	9,8	9,7	9,5	9,6 (p)
EB (25 herrialde)	7,5 (e)	7,5 (e)	7,6	9,0 (b)	9,8	10,3	10,2	10,0	10,1 (p)
EB (15 herrialde)	8,0 (e)	8,0 (e)	8,1	9,8 (b)	10,7	11,3	11,2	10,9	11,0 (p)
Alemania	5,2	5,2	5,8	6,0 (i)	7,4 (i)	7,7	7,5	7,8	7,9
Austria	8,3	8,2	7,5	8,6 (b)	11,6 (i)	12,9	13,1	12,8	13,2
Belgika	6,2 (i)	6,4	6,0	7,0	8,6 (b)	8,3	7,5 (p)	7,2	6,8
Bulgaria	:	1,4	1,2	1,3	1,3	1,3	1,3	1,3	1,4
Danimarka	19,4 (b)	18,4	18,0	24,2 (b)	25,6	27,4	29,2	29,2	30,2
Erresuma Batua	20,5 (b)	20,9	21,3	27,2 (b)	29,0	27,6	26,7	20,0 (b)	19,9
Errumania	0,9	1,0	1,0	1,1	1,4 (b)	1,6	1,3	1,3	1,5
Eslovakiar Errepublikak	:	:	8,5	3,7 (b)	4,3	4,6	4,1	3,9	3,3
Eslovenia	:	7,3	8,4	13,3 (b)	16,2	15,3	15,0	14,8	13,9
Espainia	4,1 (b)	4,4	4,4	4,7	4,7	10,5 (b)	10,4	10,4	10,4
Estonia	6,5 (b)	5,4	5,4	6,7	6,4	5,9	6,5	7,0	9,8 (p)
Euskadi*	4,5	4,9	6,1	6,2	6,5	12,7	12,4	13,2	13,5
Finlandia	17,5 (b)	17,2	17,3	22,4 (b)	22,8	22,5	23,1	23,4	23,1
Frantzia	2,8	2,7	2,7	7,1 (b)	7,1	7,1	7,6	7,4	7,2
Grezia	1,0	1,2	1,1	2,6 (b)	1,8	1,9	1,9	2,1	2,9
Herbehereak	15,5	15,9	15,8	16,4 (b)	16,4	15,9	15,6	16,6	17,0
Hungaria	2,9	2,7	2,9	4,5 (b)	4,0	3,9	3,8	3,6	3,1
Irlanda	:	:	5,5	5,9 (b)	6,1	7,4	7,3	7,6	10,2 (p)
Italia	4,8 (b)	4,5	4,4	4,5	6,3 (b)	5,8	6,1	6,2	6,3
Letonia	:	:	7,3	7,8	8,4	7,9	6,9	7,1	6,8
Lituania	2,8	3,5	3,0 (b)	3,8	5,9 (b)	6,0	4,9	5,3	4,9
Luxemburgo	4,8	5,3	7,7	6,5 (b)	9,8	8,5	8,2	7,0	8,5
Malta	4,5	4,6	4,4	4,2	4,3 (b)	5,3	5,4	6,0	6,2
Polonia	:	4,3	4,2	4,4	5,0 (b)	4,9	4,7	5,1	4,7
Portugal	3,4	3,3	2,9	3,2	4,3 (b)	4,1	4,2 (p)	4,4 (p)	5,3 (p)
Suedia	21,6	17,5 (b)	18,4	31,8 (b)	32,1	33,4 (e)	32,0 (e)	32,4 (e)	:
Txekiar Errepublika	:	:	5,6	5,1 (i)	5,8	5,6	5,6	5,7	7,8 (p)
Zipre	3,1	3,4	3,7	7,9 (b)	9,3	5,9 (b)	7,1	8,4	8,5

(:) Ez dago eskuragarri

(e) Balio estimatua

(b) Seriearen haustura

(p) Behin-behineko datua

(i) Ikus argibide-testua

(1) 2006ko urritik aurrera adierazle hau hiruhilabeteetako urteko batez bestekotik kalkulatzen da


* Euskadiren kasuan, INE.EPA-2005 datuak

Iturria: EUROSTAT.



C6.4 grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan. 2003 eta 2008. urteak.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, "2007. urtea" irizpidearen arabera.

**Suediak ez du 2008ko datuak.

* Euskadiren kasuan, INE.EPA-2005 datuak

Iturria: EUROSTAT.

**C6.5 taula:**

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoa Europar Batasuneko herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2008. urtea.

	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea
EB (27 herrialde)	9,6 (p)	12 (p)	8,7 (p)	3,3
EB (25 herrialde)	10,1 (p)	11,0 (p)	9,1 (p)	1,9
EB (15 herrialde)	11,0 (p)	10,4 (p)	10,0 (p)	0,4
Alemania	7,9	7,8	8,0	-0,2
Austria	13,2	14,2	12,2	2,0
Belgika	6,8	7,2	6,4	0,8
Bulgaria	1,4	1,5	1,3	0,2
Danimarka	30,2	35,5	25,0	10,5
Erresuma Batua	19,9	23,2	16,6	6,6
Errumania	1,5	1,6	1,3	0,3
Eslovakiar Errepublika	3,3	4,0	2,6	1,4
Eslovenia	13,9	15,4	12,5	2,9
Espainia	10,4	11,3	9,5	1,8
Estonia	9,8 (p)	12,6 (p)	6,6 (p)	6,0
Euskadi*	13,5	15,0	12,0	3,0
Finlandia	23,1	26,9	19,3	7,6
Frantzia	7,2	7,5	6,9	0,6
Grezia	2,9	3,1	2,8	0,3
Herbehereak	17,0	17,2	16,8	0,4
Hungaria	3,1	3,5	2,7	0,8
Irlanda	10,2 (p)	11,7	8,7	3,0
Italia	6,3	6,6	6,1	0,5
Letonia	6,8	9,0	4,3	4,7
Lituania	4,9	6,1	3,7	2,4
Luxemburgo	8,5	9,5	7,6	1,9
Malta	6,2	6,2	6,1	0,1
Polonia	4,7	5,2	4,2	1,0
Portugal	5,3 (p)	5,6 (p)	5,0 (p)	0,6
Txekiar Errepublika	7,8 (p)	7,9 (p)	7,7 (p)	0,2
Zipre	8,5	8,9	8,1	0,8


(p) Behin-behineko balioa

* Euskadiren kasuan, INE.EPA-2005 datuak



C6.5. grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoa Europar Batasuneko herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2008. urtea.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT.